

**SGAEren BAZKIDEEN SAILAREN  
ARLO SOZIAL ETA ASISTENTZIALA**

**ETXEBIZITZARAKO DIRU-LAGUNTZA**

Azken urte hauetan egileen alorrean egindako gizarte-lanak eman digun esperientziari esker, hauteman dugu gure bazkideei etxebizitza eskuratzea edo horren mantentze-lanak egitea errazteko prestazio eta diru-laguntza publiko eta pribatu nahikorik ez dagoela, eta gai hori oso ohikoa da egileen artean.

Egileek, lanbidearen idiosinkrasiarengatik, kasu askotan zail izaten dute etxebizitza bat eskuratzea, hainbat arrazoiengatik: ez dute aurkezteko lan-kontrarik edo soldata-orririk, ez dute aurrezki nahikorik lan-ezegonkortasuna dela-eta, diru-sarrera irregularrak dituzte, edo ez dute baliabide ekonomikorik eta/edo sozialik eskura.

Diru-laguntza honen helburua da egileei eta beren familiei laguntzea fidantza ordain dezaten edo gehienez hiru hileroko (alokairua/hipoteka) ez ordaintzeagatik egindako zorra ordain dezaten, izan dezaketen unean uneko diru-sarrera faltagatik.

### **I.- ONURADUNAK**

Diru-laguntza hau eskatu ahalko dute bizirik dauden eta Autore eta Editoreen Elkartean (SGAE) boto soziala dutenek. Halaber, etxebizitza aldatzeko prozesuan edo egoera zailean egon behar dute, gehienez haien ohiko etxebizitzaren (alokairua/hipoteka) hiru hileroko ez ordaintzeagatik.

### **II.- DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA EGITEKO BALDINTZAK**

Diru-laguntzaren eskaera egiteko baldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Eskaera aurkeztuko duen egileak urtean 2016rako OAEAParen (6.390,13 €) bikoitza edo bikoitza baino txikiagoak diren diru-sarrerak dituela egiaztatu behar du.
- 2.- Autoreak ezin du lan ordaindu egonkorrik eduki.
- 3.- Eskaera aurkeztuko duen egilea ezin da urte natural berean SGAEren gizarte-larrialdietarako laguntzarik (APS) jasotzen egon.
- 4.- Laguntza eskatzen duen autoreak jabetzako eskriturako titularra edo titularkidea edo alokairu-kontratuaren titularra edo titularkidea izan behar du, estatu espainarraren lurraldean.

### **III.- ESKAERA AURKEZTEKO BETEKIZUN FORMALAK**

- 1.- NAN/AIZ/pasaportea.
- 2.- Errenta-aitorpena edo titular guztien zerga agentziaren Ziurtagiri negatiboa.
- 3.- Alokairu-kontratua / fidantza ezartzeko lege-agiria / gehienez hiru hileroko (alokairua/hipoteka) ez ordaintzea ezartzeko lege-agiria.
- 4.- Lan-hitzarmena / hiru hileko aitorten fiskalak / enplegu eskatzaile txartela / pentsio ziurtagiria
- 5.- Familia-liburua (ardurapean familia izanez gero).
- 6.- Familiaren errolda-agiria.

### **IV.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Laguntzaren zenbatekoa hauxe da:

- Gehienez 3.000 € fidantzaren kasuetarako.
- Gehienez hiru hileroko, alokairua / hipoteka ordaindu ez den kasuetarako (ohiko etxebizitza izanez gero).

### **V.- LAGUNTZAREN MUGAK**

Laguntzak baldintza hauek betetzen dituzten egileen eskubide sozialak dira: gutxienez boto sozial bat izatea, OAEAParen bikoitza edo bikoitza baino txikiagoa den errenta izatea, etxebizitza aldatzeko aukera izatea edo unean uneko ordaintzeko arazo bat izatea, alokairuaren edo hipotekaren hilerokoa hileko 1.000 € baino gehiago ez bada.

Lehentasuna izango dute ardurapean familia dutenek, errenta txikiak dituztenek eta deialdi honetan adierazitako betekizun guztiak betetzen dituztenek. Eskaera guztiak zehatz-mehatz aztertuko dira eta erabakiak apelaezinak izango dira.

Diru-laguntzak atzeraeraginezkoak dira eta ezin dira metatu.

Etxebizitzarako diru-laguntza jasotzen duen bazkideek laguntza bakarra jaso ahalko dute. Hori gehienez 3.000 €-koa izango da fidantzen kasuan eta gehienez hiru hilerokokoa hipoteka- edo alokairu-kuotak ordaindu ez diren kasuetan. Ez dira errepikatutako eskaerak onartuko.

Arlo Sozial eta Asistentziala subiranoa da erabakiak hartzeko, eta diru-laguntzaren eskaerez arduratuko da urtero ezartzen diren aurrekontu-mugak kontuan hartuz.

Madriilen, 2017ko azaroaren 3an.